


Aurtengo sagardotegi-
dehboraldiaren
aurkezpenak, pikerra
sagardoz betetzen.

ION URBE/FOU



SAGARDOTEGIAK, TXINPARTA GALDUTA

Hasi berri da sagardotegi denboraldia, eta azken biak ekonomikoki eskasak izan baziren ere, begi onez begiratzen diote aurtengoari sagardogileek. Tentuz jokatu nahi dute, hala ere; egoerara egokituz. Horregatik, urtarilaren 28aren zain daude, orduan erabakiko dira aurrera begirako urratsak.

Miren Mujika Telleria

Apar gutxi-ekin bukatu zituzten sagardotegiek azken bi denboraldiak; pandemiak baldintzatu ta, alegia. Hasi berri da aurtengo, eta gutxinaka egoera normaltasunera itzuliko delako esperantzaz bizi dira sagardo

munduaren erdigunean, Astigarragan eta Hernanin (Gipuzkoa). Hala ere, tentuz ibili nahi dute aurtun ere, unean uneko egoerara egokituz.

Astigarragako Gurutzeta sagardotegiko nagusia da Joxe Angel Gofi, eta aurreko bi denboraldiak ekonomikoki «oso eskasak» izan zirela dio, «2021ekoa batez ere». Azaldu du 2020. urtekoa martxoan eten behar izan zutela, pandemia zela medio, «bai-

na bere txarrean konformatzeko moduan joan zen denboraldia», gehitu du.

Pandemiari aurre egiteko neurriek txotx egitea debekatzen dute, eta Gofiuk uste du horrek sagardogintza erabat aldatzen duela: «Gaur egun, txotxa beharrezkoa da sagardogintzan». Botilako sagardoa izan da sagardotegien salbazioa bi urte hauetan, «baina zaila egiten da botilaren salmenta errentagarri bihurtzea».

Gofiaren arabera, alde handia dago lehengo sagardotegi denboralditik gaur egungora. Sagardoa mahaira eraman behar dute, mahai bakoitzeko hamar lagun eseri daitezke, eta %60ra murriztu dute gehienezko edukiera. Gainera, COVID ziurtagiria ere eskatu beharrean daudela dio Gofiuk: «Neurri asko bete behar ditugu oraindik, egoera normalean bete beharko ez genituzkeenak». Baina, hala ere, denboraldi berria es-

perantzaz eta gogo handiz dutela ziurtatu du.

Bat dator Gofiarekin Astigarragako Oialume Zar sagardotegi Ander Barrenetxea. Dionez, urteko denboraldia lazgarria izan da sagardotegientzat, eta galera ekonomikoko handiak izan dituzte. Azaldu du: «Hainbat alditan eten behar izan genuen, gero sagardotegi bat berriro ere martxoan itzulezkeak duen gainkargarekin».

Barrenetxeak dio beldurra duen

ANDREU BERRIA
2023/04/15 23:01



«Txotxa beharrezkoa da sagardogintzan; sagardo botila errentagarri bihurtzea zaila egiten zaigu»

Angel Goni
sagardotegia



«Salentzarik gabe, azken bi sagardotegi denboraldiaren ondoren, oso etorkizun handiak izan dira»

Angel Goni
sagardotegia



«Kostata, baina aurre egin diogu orain arte egoerari. Luzatuko baitz, etorkizun beltza ikusten dugu»

Angel Goni
sagardotegia

dugu». Baina, hala ere, aurreko bi denboraldien ondoren «zuhurtziaz» jokatu nahi dute. Hala, egoerak hobera egin dezakeela uste du Oialume Zarreko nagusiak, eta bide horretan, etorkizun «ahalik eta laburrean» zutikako txotxa itzuliko delako itxaropena du: «Txotxa baimentzen ditudenean, dena konpontzen ari den seinale izango da».

«Azken bi sagardotegi denboraldiak oso zailak izan dira ekonomikoki». Hala onartu du Hernaniko Larre Gain sagardotegiko Amaiz Lasartek. Iazkoa izan zen bietan konplexuena. Izan ere, itxiera perimetralek eta antzeko neurriek jende kopurua asko murriztu zuten: «Orain konturatzen gara lehengo urtean zeinen gaizki geunden».

Beren sagardotegian ere galera handiak izan dituztela azaldu du Lasartek, «urte galduak izan dira». Hala ere, «kostata» baina orain arte egoera zail horri aurre egitea lortu dute: «Egoera hau denboran luzatuko balitz, oso etorkizun beltza ikusten diot sagardogintzari, denbora gehiegi baita sagardotegi batek bizirik irauteko».

Botilako sagardoa

Are, negozioa mantentzeko arazoak izan dituztela nabarmendu du Lasartek: «Botilako sagardoa salduz eutsi diogu negozioari, baina zerbait gehiago behar da aurrera egin ahal izateko».

Goni eta Barrenetxearen antzera mintzo da Lasarte txotxaz, ekonomikoki «ezinbestekoa» baitu sagardotegi batek. Larre Gainen, sagardo botilatuaren salmentak handitu baditu ere, «beste zentzu bat ematen dio sagardotegiari, bai ekonomikoki eta baita sozialki ere». Txotxik ez egoteak ekonomikoki baino gehiago giro aldetik egiten die kalte: «Eserita kontsumitzeak goitik behera aldatzen du sagardotegi denboraldia».

Hala ere, Lasarte baikor azaldu da denboraldi berriaren hasieran. Izan ere, oraindik badago eskaria sagardotegietan, «eta horrek igotzen gaitu gora». Azaldu du jendea hasi dela erreserbak egiten dagoeneko, batez ere asteburuetarako. Horregatik, begi onez begiratzen dio datorrenari: «Badago gogoa eta lehengo urtekoa baino hobea izango dela aurreikusten dugu. Iaz guztiz mugatuta geunden, eta aurtun, hobetzeko esperantza dugu».

Urtarrilaren 28aren zain daude Goni, Barrenetxea eta Lasarte, ordurako erabakiko baitira aurrera begirako urratsak.



Hernaniko kaleak eta tabernak hutsik, iazko sagardotegi garaian. JON URBE / FORU

Pandemiaren eraginez, galera ekonomiko handiak jasan dituzte sagardo denboraldiari lotutako ostalariek eta taxilariak. Fakturak ordaintzeko arazoak izan dituzte, eta ez dute aurtun egoera hobetzea espero.

«Ez dugu izan laguntza ekonomiko handirik»

M. Mujika Telleria

Gogor astindu du pandemiak ostalaritza sektorea; ekonomikoki, batez ere. Sagardotegi denboraldian jendea bete izan dira Hernaniko kale zein tabernak, baina badira bi urte jende kopurua nabarmen jaitsi dela pandemiari aurre egiteko hartu diren neurrien eraginez; eta galera handiak ekarri dizkie horrek tabernei.

«Justu-justu atera dugu urtea aurrera». Etsipenez mintzo da Hernaniko Kito tabernako Antton Elizegi. Dioenez, «ikaragarriak» izan dira diru galerak pandemia hasi zenetik, eta oso diru sarrera gutxi izaten ari direla baieztatu du: «Mailegua ordaintzeari bi aldiz utzi behar izan diot».

Gainera, ziurtatu du taberna barruan zutik kontsumitu ezinak asko jaisten duela jende kopurua, eta, beraz, askoz ere gutxiago kontsumitzen dela: «Jendeak trago bat edo beste hartzen du, baina ez dauka lehengokoarekin zerikusirik». Elizegi azaldu du gaitzari aurre egiteko hartu diren

neurriek ostalaritza sektoreari kalte egin diotela, eta, haren hitzetan, «buru gabe» ezarri dira arauak; «bide honetan gaizki goaz».

Administrazioaren aldetik inbertsio eta laguntzarik bat ere gabe sentitu direla dio Elizegik, eta horrek haserreazten du.

Etsipenez mintzo da Hernaniko Kito tabernako Elizegi: «Mailegua ordaintzeari bi aldiz utzi behar izan diot»

Bere jarduna aldatu du Pereira taxilariak: «Astigarragatik Hernanira eramaten nuen jendea; orain, ospitalera»

«Ondorio ekonomiko larriak bizitzen ari gara ostalariek; guztiz baztertua utzi gaituzte».

Mesfidati begiratzen dio Elizegik hasi berri den sagardotegi denboraldiari. «Aurtun ere ezin dugu ezertxo ere espero. Egoera hobetzeko zain gaudenean beti gertatzen da egoerari buelta ematen dion aldrebeskeriaren bat», azaldu du.

Ostalariek ez dira ekonomikoki kalteetara atera diren bakarrak,

izan ere, antzeko kasua bizi dute taxilariak. Astigarragako taxi gidari Fernando Jose Pereirak dio «oso txarrak» izan direla diru aldetik azken bi urteak.

Sagardotegi denboraldian alde batetik bestera jende asko mugituta da Pereira, baina, pandemiaren eraginez, bere jarduna aldatu du: «Astigarragatik Hernanira eramaten nuen lehen jendea, eta alderantziz. Orain, berriz, ambulatiora eta ospitalera egiten diut bidaia gehienak».

Elizegiren antzera, taxilariak «inolako laguntzarik gabe» sentitu direla azpimarratu du Pereira:

«Pandemia hasi zenetik galera baino ez dira izan gurean, eta oso zaila da fakturak ordaintzea inolako laguntzarik jaso gabe».

Pereirak ez du uste hobekuntzarik gongo denik aurtengo sagardotegi denboraldian. Dioenez, aurturko bi urtean antzera aritu behar da lanean, eta esperantza handirik gabe mintzo da ondorioz: «Gauden egoera ikusita, ez dut uste, inondik inora, hobekuntzarik gongo denik».